

ZERUKO ARGIA

IIeroko Aldizkari Edergarfidun Alta Kaputxinoak zuzendua



14 Urtea-1932'ko Garagaraiña-162 Zenbakia.

Paduako Antonio Deunaren Bi Eunurte



1. Antonio deunaren eriotza (1231-1931)

NTONIO deuna azkeneko garizumako neketatik atsedena eta bere eritasuna sendatzera joanda, Paduatik urbileko *Camposampioro*'ko basoan bizi zan, bere burua osoro jaungotkoari emanik. Intxaufondo aundi baten gañean etxolatxo, egin eta bereartan igarotzen zitun gaua eta egunak, lufetik ufunago eta zerutik gertuago izatearen.

Mila bereun da ogeitamaikagaren urteko garagarailaren amairugaren eguna zan; ostirala. Antonio deuna bere egon-tokitik jetxi zan janari apur bat artzeko, eta ondo etzegola ezaguturik, bere lagunari esa zion: «Anaia, ongi baderizatzu, Paduako *Santa*

Mariako gure Anaien etxera joango naiz, emengoak geiegi ez nekarazteko». Ruggero Anaiak egiñalak egin zituen Antonio deunari atsegiñ ekartze-

ko. Oñez joateko etzan gauza ta, idi-gurdi batean etzan eta alik obekien^a estali eta abiatu ziran Paduako bidetik.

Uri artaik urbil zirala, *Camposampiro*-ra eria ikustera zijoan Anai bat arkitu zuten. Eta arek, Antonio deuna iltzeko zorian ikusirik, *Arcellan*-n bi-zi ziran Anaiai eskatu zien ostatu; eta etxe artara sartu orduko, lafitasun aundiak eman zion eriarri. Gozatu zalarik, Elizakoak artu zituen biltasunik aundienaz eta ondoren, bizitza guzian maite-maite izan zuen, bere Ama, Andre Mariri abesten asi zan, lenago ere askotan abestu izan zuen abestia:

O gloriosa Domina-Oi Andre goretsia.

Oi Birgiña ta Andre goretsia,
izar guzien gaiñ eseria,
zuk sortu duzu zere Egilea,
zure esnez azi Jainko-Semea.
Lengõ Ebak bein kendu ziguna
zuk Aur ofen bidez dakarguzú;
doakabeok sar al gaitezen,
zeruko leiõ egin zera zu.

Zu goiko Efegefen atea,
argiaren sarbide idikia;
efi guziok, gora txaloka
Birjiñak emandako, bizia.

Ospea beti, oi Jauna, zuri,
ospea Aitari, ta ospe bera
Biongandik datofen Atsari. Alaxen.

(*Iraizozko P. A'h. euskeratua*)

Ondoren, begiak zeruko argitan, eta gora begira jafirik,—*Video Dominum meum=Nere Jauna dakust!*—oiu egin zuen. Eta damu-eresiak azkeneraño abestu zituelarik, bereala atera zan aren gogoa, *arima*, gorputzeko espetxetik.

Berealaxe asi ziran ere Paduako aufak, etxadiak bafena,—*Aita deuna il da! Aita deuna il da!*—deadarka, aren il-befia alde guzietara bafeatzen.

Mortus est Pater Sanctus!

II. Antonio deunaren goreskundea (1232—1932)

Antonio deunaren il-befiak inguramari guzian zabaldu zuen samintasuna, biurtu zan etsegiñ eta aren ilelak gorespenezkoak izan ziran.

Paduako *Santa Mariara* eraman zuten gorputza eta eliza berean eortzi. Bertatik asi zan etengabeko oztearen emana, Antonio deunaren ilobia ikustera eta bakoitza bere beafen estalbidea eskatzera; eta asko eta asko izan ziran, osasun eske joan eta erabat sendaturik itzuli ziranak.

Ainbeste afigafi ikusita, il zanetik ilabete baño len, asi zitzazkion Paduatafak eske Aita Santuari, Antonio deunesteko agiriki, aldaretaratzeko. Gregorio bederatzigafena zan Aita Santu garai artan; eta guziz ezaguna zuen arek Antonio.



Achille Casanova Bologna'fak egiña.

Bear ziran bide guziak berealaxe egin ziran; eta urtea bete baño len, 1232'ko ofilaren 30'an egin zan Espoletoko urian gure Antonio deunaren deu-deuneskunda (kanonizazioa).

Gaude=Poztu

(Ex ant. Liturgia S.Ant.)

Poztu, Antonio, Kristoren mofoia!
Gazterik, Jaunaren graziaz betea,
lufeko utsalkeri ezdeusak utzi ta
itzuli baitziñan zeru-gauzetara.
Poztu zaitez; fede-gabeen artera



Antonio deunaren gorespena.

nai zenuen joan, suturik biotza;
 martiri izan naiez, lengo biziera
 utzi, taartzen duzu Frantziskar jantzia
 Poztu; mintzalari zufenen artean
 eraste onena agertu ziñan zu;
 zure aharantza ugari sutsuaz
 gizon jakiñenak garaitu dituzu.
 Poztu zaitez; Jaunak zeruratu zaitu,

irabazi duzun saria biltzera,
 egun ta betiko Kristoren ondoan
 eseria zaude ospez apaindua.
 Poztu, oi Padua uri doatsual
 Poztu, poztu, poztu
 Ondasuntze ofen jabea baitzera!
 Poztu, poztu, poztu.
(Iraizozko P.A'k. euskeratua)

Ereñotzu.

Antonio deunaren egunean Meza bat emango da
 ZERUKO ARGIAREN idazle, irakurle, ta ongile
 guztien alde, Antonio Santuaren aldarean.

Antonio Deunaren Esanak



ROKERIA sendien (familien) zigorkada ta efien ondamendia da.

Afokeriak bafenbean naigabea ixuritzen du, ta gure almen guziak nasi egiten ditu.

Jaungoikoagandik bartartzen gaitun afokeria, gizonen arteko nasketa-itufi izan oi ere da.

* * *

Apaltasunak (umildadeak) gizona Jaungoikoa-
rekin batu bakarik eztu egiten; baizik gizonak ere beren tartean besarkarazi
egiten ditu.

* * *

Ondasunak, ugaritasunak afokerira garamazkite; gure griñen ekaitzal-
dietarako biotza auldu egiten digute. Zoritxafak befiz, gure argaltasunaz
oafazten gaitu, ta Jaunagana garamazki.

* * *

Zoriontasun iraunkorak lufari josirik uzten gaitu, zerukoak gerala aztu
erazi egiten digu.

* * *

Onbide guzien efegiña, goimaitasuna da. Apaltasuna, berofen neufi ta
zaintzalea.

* * *

Afi ta zurak alkargana gabe, etxea ez liteke jaso; ofela gogo zati guz-
tiak alkartzen dituan lokafia goimaitasuna da.

* * *

Maitetasuna sua da; baño iru gauzak itzali dezakete: afokeriaren aizeak,
jan-edankeriaren eta loikeriaren urak eta zikoizkeriaren ke ifogafiak.

* * *

Mundua utzi dezazu bere gaiztakeriakatik. Munduan salkeriak maizago
arkituko dituzu, pozaldiake baño; maizago gofoto ta asafebideak, egiazko
maitetasuna baño. Bere gozakeriak labufak dira, bere aberastasunak galko-
fak; bere palagu edo loxintxak, gezufez beteak.

* * *

Zure lagun-urkoa maite ba-dezu, bere emengo zoritxafak biotza bateko
dizute; oraindik geiago bere gogozko edo bafengo zoritxafak, beroiek beti-
ko ondamendira eraman dezaketelako.

Birjiña donea, bedeinkatua zera, Jaungoikoaren Ama zeralako bakafik ez baño, Ama ain bikaña ta bere Legearen betetzale zintzoa zeralako. Oi Maria Itxasoko izafa, gure efegiña, gure itxopena. Itsasoa ur-bizietan dago: osin artean gure argi-emale izan zaitez; gure gidari ta itsasoaren baretzale...



Intxaufondo gañetik efiari itzegiten.

Zugaitz guzien artean zipresa gora jasotzen dan antzean, Mariaren jar-goia ere aingeru guztien jar-lekutik gora dago bere edertasunaz.

* * *

Gure Erostaiearen bost zauriak iges-efiak ba'dira, bere jainkozko biotzeko zauria, efi ortako eguzkia da. Jesus'en sayetseko atea idekitzean, ortik zeruko atea ideki zaigu; angó argi-izpiak gureganaño darizkio.

Bi Itailek.



Urkiolako Antonio Deunari

ESKARIA

Begiekin ez aŕen, bazakust biotzez
maitasunak damaidan argiaren bidez.

Ortxen zakust, Andoni, Anbotoren koxkan
pagauso bat bezela egarako itxuran.

Ortxe zaude leyatsu noiz gu etoriko,
gure aiton zafak lez, onak trixteko.

Urkiolara, bada, ziniñtzaigun jetxi
nai degun ainbat esker emateko guri.

Maitasun-zalea da euskalduna, bañan
arkitu ere badu maitalea zugan...

Zorionez badegu biotza non ustu;
badegu gau ta egun norekin mintzatu!

Zoritsua benetan oŕa lijoana:
etzaio damutuko artutako lana!

Naigabe latzik balu... poztua litzake
ta ilunean balebil eguzkia luke...

Zenbat aldiz, bada, or gure aiton zafak
auspez erori ziran, efeta min-gafak!..

Bañan... Bai jaso ere zure oñetatik,
zekarzkiten arantzak lore biurturik...

Ortxen arkitu zuten biotzeko indaŕa;
ortxen, ekaitz-aldian, poztasun-izafa.

Ta itsaro asafean bafundu baño len
laguntza ta argi eske oŕa zijoasten.

Eleiza ta arkaitz oyek al baligute esan
zenbat esker irlxi zizkiezun bertan!..

Baña argi dasaigute orko zineskalak
biotzeko odol-malkoz neurtu ta bustiak!

Zuk, Andoni, ezkeŕez ta asabak agurka,
baziñituzten ortxen amaika bufuka...

Ta afitzeko ere ez-ta olako zalea,
euskalduna baizan ta zure amandrea!

Izan dituzu, noski, poz-orduak ere;
bakartasun-gauetan argi ta adixkide...

Ordaindu izan dizute zerbait zof galanta
osotara ezpada, osoaren tanta...

¿Zer, baña? ¿Ez al zaude gaur ere, Andoni,
esku-zabal ez ezik, erne ta iratzartti?

Ez al zinan, ba, jetxi Urkiolara zu
ekaitzean genezan non jo ta aterpetu?

Aspertu ote zera, nonbait, eleiz ortan,
ez dakuszulako gauz iñor Urkiolan?...
Ez ori! Or zaude, bai ojuka goi-goitik,
ez gaitzela aldendu asaben bidetik.

Goazela guziok zuregana laister,
datorrigula-ta naiko etsai oker...
Zure begirapean babesten bagera,
lertuko dala iluna etsaien gañera...

Entzungo al ditugu zure dei maiteak;
eragingo al digu zure eskubideak...
Aiton zafak bezela, guk ere, Andoni,
elduko bagenio zure esku onaril!...

Afen! begira iguzu antxiñan bezela:
zuzen zazu zedorek gure euskal-batela.
Luza zazu eskua, ta itz bat ez besterik,
gezalduak ditugu etsaiak bertatik.

Zaude, zaude gurekin: elkartu gaitzazu,
nora ere goazen, ara dafaiguzu.
Begira bai, Andoni: suzko sorgin ori
ez dedila geyago Anbototik jetxi.

Goñotoa erein du biotz geyenetan,
ta anaiak berak gaitu nasi buruketan.
Lotu zazu, ba, katez arkaitz bafenean;
dagola antxen uluka sugafen artean.

Goñotoa sortzera etofia bada
berari dioguna... afapa dezala!
Ta alaz ere baletor miro beltz galztorik,
ez dezala iges egin zure sare petik:

Urka itzazu goi ortan, batera, guziak,
goizean oi duan lez gaua eguzkiak.
Bultza zaiezu gogor Anbototik bera
ta Anboto bera gero durundiz gañera...

Utziko al digute ofela pakean,
ez genduken ezkerre beraien artean.
Baztertzerá bádatoz Lége ta Jainkoa,
moztu zaiela berai gaur bertan lepoal!...

Eutsi, eutsi, Andoni, Euskaleñari,
aritzak oi dion lez alboko untzaril!
Bildu zazu estuki zure lokariaz
ta atera burukatik bizi ta garaiaz.

Batu, ainbat lastefen, euskal-artalde
ta alde oyetan eman zeruko lafea...
Ageri zaigula, bai, guri Urkiola,
ekaitz-egun beltzetan dirdir dariola!...

Loramendi O. M. Cap.



ITURGOYEN'DAR KARMELO A.

GUZTIZ AGURGARIA

Kaputxinoen Aita Nagusienaren Aoulkulari.

Naparo'ko Gesalatz ibarean eta Iturgoien'go erian 1884' ean jaio zan Balbino Goñi ta Roldan. Amaika urtetan Igualada (Kataluña'ko) Kaputxinoen Ikastetxean sartu zan.

Andik lenengo ikastaroak egiñik, Naparo'ra etori zan. Zangosa'n ikasurtea egin zuan, Tudelan eta Iruñan ondoreko ikastaroak. Auek bukatzean Suiza'ko Friburgo'n Teologia beriro ikasi ta antxe Irakasle(Doctor)egin zan.

Gero Iruña'ko gure etxean Irakaslari, Nagusi ta Aita Probintzialaren Aoulkulari izan zan, orain bi urte Probintzik Buruzagitzarako aukeratu arte.

Oñilaren 16'ean Aita Kaputxinoen Nagusienaren Aoulkulari izendatu dute España guziko Kaputxinoen Ordezkoztat.

Eginkizun berri ta astun ori ondo betzeko laguntza Jaunak bezio, Erroman on aundia egin dezan Kaputxino guzian alde.

Gure atsegiña aundia da, gure Buruzagiaren gorapenaz.

ZERUKO ARGIA



AGURTZEN ZAITUT...



URE Aita Serapindafaren Eliz-otoitzan auxe irakurtzen degu: *Signasti Domine servum tuum Franciscum signis Redemptionis nostrae*. Zure mirabe Prantzisko Donea gure Berospen edo Efedentzioaren ezaugafietzaz markatu zenduan, o Jauna.

Asistafari biotzaren bafu-bafuraño Gurutze Doneaganako maitetasuna sartu zitzaion: ofegatik Gurutzearen afean auspeztu-ta maitetasunez beterik «Agurtzen (adoratzen) zaitut,

o Kristo, eta bedeinkatzen zaitut zure Gurutze Donearen bidez mundua beferosi (efedemitu) zendualako» esaten zuan.

Ez al da egia semeak Aitaren antza izatea berezko gauza dala?

Asistafak Gurutze donea maiterik zeukan, eta Padua'ko Antonio Doneak?

Prantzisko Donearen Semea zalako maite bear; are geiago bertan bere odol bikaña azken tantoraño ereiñaz Jesukristo'k deabruaren mendetik atera gindualako.

Baño, Kristauak ez diranetatik bereizten gaituan ezaungafi au maitetasunez egin ezezik, kristau gutxik ibili izan duten eran ibiltzen zuan: mirariak egiteko, milagruak egiteko.

Janari pozoitua.

Rimini'n bizi ziran Katara izeneko ziñausle edo erejeak gure santuaren mirari aundi bat ikusi ta bere itza entzun ondoan bide txafa utzirik, Padua'ko Antonio Doneak erakusten zuan bide zuzenera itzuli ziran. Au guztiak ikusi afen, bere setan irauten zutenak, gofotz beterik, ainbeste lagun kendu zizkien Doneari (Santuari) bizia) kentzea erabaki zuten.

Baño nola?

Gauza efaza: jatera ots egin Jainkoaren gizonari eta jatekoa pozoitu.

Esan eta egin. Bere asmoak irixteko eran bazkaria prestatu ta bazkal-
tzera ots egin zioten.

Iritxi da janlekura: baita bere jatekoa pozoiturik dagoala zeruko argiz
ezagutu ere. Begietan ematen die bere txarikeria Kataro gaiztoai. Auek, lo-
tsatu beafean, janazteko egiñalak egiten dituzten ta au esaten diote:

—Edo Ebanjelioak diona sinisten dezu edo ez. Sinisten ba'dezu, zerga-
tik zalantza edo dudan jafi bear dezu bertan Jesukristok dion au: *Nere ikas-
leak deabruak botako dituzte eta edozein gauza pozoitua edaten ba'
dute, ez die kalterik egingo?* Eta Ebanjelioak diona ezpadezu sinisten,
zergatik erakusten diguzu? Artu, artu janari au, ta ezpadizu kalterik egiten,
guztioz katoliko egingo gera.

—Eskatzen didazutena egingo det, ez Jaungoikoaren itza egiazkoa dan
nik ikusteko, baizik zuen animai diodan maitetasuna eta Ebanjelioaren ga-
raipena zein benaz nai dedan adierazteko. Jatekoaren gañean gurutzea egin
ta jan egin zuan batere gaitzik oartu gabe. Au ikusi-ta ziñausleak (erejeak)
katoliko egin ziran ta, pozez beterik, au gertatu zan efetik beste batera juan
zan.

Itzaiaren semea.

Udine'n ondoan dagon Gemonan arkitzen zan Antonio Donea Porziun-
kula'ko lekaletxe edo komentuen antzeko bat egiten. Berak langiliñen buru
egiten zuan. Afobitik afia ateratzen ari ziralta, itzai bat bere idi ta gurdia-
rekin ondolik igaro zan. Antonio Doneak esaten dio ea idiak utziko zizkion
afia eramateko? itzaiak au erantzun zion:

—Eztaukat orain afia eramaten aritzeko gogorik; gurdian il bat daramat.

Gezur aundia esan zuan. Gurdian zijuana bere semea zan, luze-luze
etzanik eta lo zegoan. Andik igaro zanean bere semeari ots egin zion, praile
argiñari nolako gezufa esan zion pafez esateko asmotan.

Deitu zuan, bañan alpefik. Gezufa esaten zualako ustean egia esan
zuala zirudin. Ilik zegoan semea. Ikara-ikara egiñik eta damutu-ta Santuaren
bila juan zan, gezufa barkatzeko eta semeari bizia itzultzeko eskatu zion,
bere oñetan auzpezturik.

Aitaren naigabea begiragafia da guztientzat, geiago maitetasunez bete-
rik dauden santuentzat. Juan ziran biok gurdia zegoan lekura, ilaren gañean
gurutzea egin ta pizturik eta bizkor zegoan gazteari eskua luzatu zion.

Amari ostiko.

Bein batean berekin aitortu zan batek ama gaizki artu ta ostiko bat jo
eta lufera bota zuala esan zion. Prantzisko Donearen seme bikañak, egite
ofen gaiztakeri aundia adierazteko auxa esan zion: «Olako txarikeria amari
egiteko ibili dezun oñ ofek ebakitzea merezi du».

Itz oiek esan nai zutenari baño geiago itzen otsari begituaz, gizon arek,
etxera juan-ta bereala, aizkora artu ta oin pekataria moztu egiten du.

Ama, ura ikusi-ta, naigabearen naigabez zoratu-ta, ba-dijua Doneagana
ta begietan ematen dio alako aolku edo konsejua bere semeari eman diolako.

Antonio Doneak ixil ta asefetu gabe guztia entzun zion ta bukatu zuanean andrearen atzetik onen etxera juan zan. Artzen du gaztearen oña, ankaren ondoan jartzen du, bi puskak alkar jotzen zuten lekuan gurutzea egin zuan. Bereala aragia ta ezufa ondo batu ta alkartu ziran ta sendaturik ta Jaungoikoari ta Paduako Doneari eskefak emanaz jeiki zan.

Mutiko elbaria.

Ama gaixo batek bere mutikotxo elbariturik zeukan. Zer egingo du ainbeste maite duana sendatzeko? Ainbeste mirari egiten dituanagana juan. Besoetan aupa duala agertzen da Miragilearen aupa. Onek auparen gañean eskua luzatu, gurutzea egin ta bat-batean oso sendaturik gelditzen da.

Oña gure Donea mirariak Gurutze Donearen bitartez egiten.

Nondik ote datorkio olako indafa gurutze Doneari?

Kristau-lkasbide edo Dotriñak argi esaten digu. Gurutzean Jesukristo gure Jauna guri zeruko ateak zabaltzeko, gure pekatuen zofak ordaintzeko il zalako.

Jesukristo gure Jauna gizon utsa izango balitz, gurutzeak olako indafik izango ote zuan?

Padua'ko Antonio Deunak (Santuak) Gurutze Agurgafiaren bidez egin zituan mirari afigafi auek gez al digute Gurutzea egitea Jaungoikoari atsegin zaiola adierazten?

Beraz Gurutzea egitean, saiatu gaitezen gure Deunaren antzera siñinmen biziz, maitetasunez, begiramen eta afetaz egiten. Elizan sartzean batez ere, ondo egin dezagun.

Esaten diran itzak biotzez esan ditzagun ta ez oarkabean. Orduan Gurutze Deunak gure animetara zeruetatik esker edo grazi asko jexxiatziko ditu.

Maite dezagun Gurutze bedeinkatua, Padua'ko Antonio Donearen antzera.

Biotzaren erdian maitetasunaren bidez eraman dezagun.

Jafi dezagun gure etxeko lekuri nagusienean. Bera izan dedila gure etxeko Jauna.

Etsaiak dituala? Ez ikaratu.

Jesukristo gure Jauna bere etsaiak il zuten ta ala are...

Jesukristo gure Jauna garaile da. Jesukristo gure Jaunak Gurutzetik beregana ekafi ditu mundu guztian zabalduz dauden lagunen biotzak. Miloi-ka gaurko egunean berari agur egiten ari dira munduko bazter guztietan.

Odolean ito nai izan dute, Jesukristok Gurutze Donetik erakutsitako Erljioa, baño ez dute iritxi.

Gure Erljioagatik odola ixuriaz, kristauak bere odola ixuriaz, ugaritu dira. ¿Nork garaitu nekeakin, indartu egiten dan Uzkurtza edo Erljioa.

¿Nola aitu ta ondatu kristauak, oien burua moztu-ta kristau befi geiago sortzen ba'dira.

Eutsi dezaiogun Gurutze agurgafiari.

Bera da gure ikufin edo bandera.

Bere ondolik ibiliaz garaipena gurea degu.

ARBELAITZ.

ANTONIO SANTUA ETA AMA BIRJIÑA



BEN lafia edo bekatu mortala utzi nai dunak Jainkoaren laguntza eta grazia bear du nai ta nai ez.

Grazi ori bear dugu ere, bizi garaño Jaunaren adiskide irauteko; eta bereziki azkeneko orduan.

Gañera, ez ona bakafik, baizik santu bat izateko asmoa artu duanak, naiz asmo ori añas bizkora izan, bear du ere

Jainkoaren grazia tontoferaño igotzeko.

Laguntza eta grazia ori eztu ordea ematen Jainkoak, eskatzen ezpaziao. Ofengatik otoitza, eskaera da ain ardura aundiko lana.

Beste gauza bat: Santu nundienak eta teologo jakintsuenak diote, Jainkoak eztigula bialtzen grazirik, bere Amaren bidez ezpada.

Ara zergatik izandu ziran Santu guziak, Ama Birjiñaren maitalari sutsuenak.

Berealaxe gure Antonio Deuna. Eta zenbateraño ustea zuan Jainkoaren Amagan, agertzen zaigu ederki gertaeratxo ontan:

Infernuko etsayak, gofoto izugaria artu zion gure Santu maitagariari, bere atzapafetatik kendu ta zeruko bidera eramaten zituari aibeste animengatik.

Bein, Antonio Santua arkaitz zulo batean otoitzean zegoala, gizon beltz, ikaragari baten itxuran aurrean jafi, ta atzapafakin zintzuretik eldu ta, ito bear zuala zirudin. Ikara izugaria artu zuan gure santuak. Baño bereala deitzen dio Ama erukitsu eta biotz bera ari. Bera, deitu orduko jeixten da; eta deubruak, ofu aundi bat egin ta, iges egiten du, ke beltz, nazkagaria, bere atzetik uzten duala.

«O gloriosa Domina» euskeraz irakuriko duzue «Zeruko Argi» ontan bertan. Kantu polit ofen bidez, bada, eskatu zion Antonio Jaunak Ama Birjiñañi, laguntza estualdi artan.

Ikasi bida irakaspena: ¿Bekataria zera? ¿Ezin utzi duzu oben-bekatu? Zoaz, baño ziñez eta benaz «Bekatarien Ama» afengana.

¡Bildur zera, Jainkoaren grazian iraungo ez ote duzun?—Otoitz egin, eskatu biotz-biotzez Ama on cfi, egunero eta gauero; batez ere tentaldietan.

Eta au egiñik, esaizkiozu bildurik gabe Buenabentura Sak. ziozkan itzauk: «In te, Domina, sperari, non confundar in aeternum.»

Zugan, Ama, jafi dut nere itxaropena, eta enaiz beñere galduko.

A. I. M. A.

Antonio deunaren eliza Paduan



ANTONIO deuna mila befeun eta ogeita amaikagafen urtean il zan. Eta Paduafak artaz aztutzeko betarik etzuten eman. Aren ize-na ufengo urtean deun edo santuen lefoetan ezafi zuan Elizak. Baita Aren omenaz goratu nai zioten Eliza aundia asi ere. Etxalde bikaña da. Luzean eun eta amabost metro ba-ditu. Iruña'ko Eliz-Nagusia edo Donosti'ko Artzai Onaren Elizak baño befogei bat metroz luzeagoa. Iru

abelarte zabal ta saiets-zoko nasaiak ditu. Naiz Eliza-bafuari, naiz gañari, ikusteko aundia ematen diote bere laranja-erdi antzeko kaldor edefak. Onen aldamenean dagon Venecia'ko Marko deunaren elizakoak gogorazten dizkigu.

Bi garaietan Eliza onek asko galdu zuan. 1616'ean, bereartan jafi zuten zapartakatakariaz, eta 1749'an, sua eman ziotelako.

Ala ere margo-oletan, ar-zurizkoetan, ezarkietan eta burni-orizkoetan ornigafi ugari dauka; baño asko garaietakoak eta balio ez-berdiñekoak ditu. Argatik guztiei batera ematen zaien begiztaldiak eztu betetzen.

Dofe ta laranja-erdi antzekoak, kanpotik alkafi kalte egiten diote. Eta guztiari zegokion aunditasunak galdu egiten du beroien ugaritasunaz.


Donatello ta bere ikasleak egindako antziñako aldaretik zenbait irudi ta apaingafi ba-ditu oraindik. Prantzisko deunaren eta Antonio deunaren irudiak irudigile aipatu onenak dira. Biak oso politak eta biziz beteak. Irudigile au bere beste irudietan urduri ta afitu-antza ba-dager ere; auetan ez. Donatello berarena da, *Gattamela*'ko zaldun irudi afigafia ere. Au Eliza-atariaren saferako alde batean dago.

Eliza onek dituan ondasun guzietan edereñetakoa, Antoni deunaren mingañaren *gopuzkaria* (relicario) da. Mingain ori usteldu gabe ta eze-ezerik arkitu zuten, deunaren beste aragi guziak auts biurtu ondoren.

M. F. A



Antonio deunaren eliza Paduan.




Antonio deunaren mingaña



PADUAKO uriak, Ezzelino ankefaren menpetik ateratzea, 1263 urtean Antonio deunaren bitartez iritxi zuelako, paduatafak eskefonetan eliza befi aundia egin zioten. Deunaren gorpuzkiak eliza artara aldatzea erabaki zuten; eta Pazko-zortzigafenean, ogeitamabi urtez lurpean egon zan, gorpuzkia bere obitik atera zutelarik, aren mingaña goñi eta eder, aurre artantxe ilarena balitz bezelaxe, arkitu zuten.

Gertakari ortan ikusle zan, Prantziskotar guzien Nagusi egiten zuen, Bonabentura deuna, geroago Janzkordun eta Albaniko gotzai izan bear zuena; eta begiramen aundiz bere eskuetan artu eta onela mintzatu zitzaion ikusle guzien aurrean: «*O lingua benedicta, quae semper Dominum benedixisti, et alios benedicere fecisti, nunc manifeste apparet, quanti existis meriti apud Dominum!*»=Mingañ onesgafia, Jauna beti onetsi zenuena eta besteai ere onetsierazi zeniena, garbi ageri da orain, zenbateko irabazia dezun Jaungoikoaren aurrean! Eta maiteki muñ emanik, berarizko ontzi ederean ipintzeko agindu zuen. (*Ex Liber. Miraculorum*).



Antonio Deunaren mingaña daukan gorpuzkariz.


Olim mundo minoratus (Prosa)

In honorem Scti. Antonii a Padua


(Donostiar J. And. Abak ereskidetua.

2) Cur quærentur hic ho no-res? En ho-nórum contemptores Honorán-tur

1) O-lim mundo minora tus, In su pernis co-ro-na-tus, Ex-sul-tat An-



am-pli-us. 4) Se de-nú-dans indumentis, Par-vi pendet il-lu-dén-tis Michol
to-ni-us. 3) Spretis mundi blandi-méntis, Hic in ma-nu blan-dien-tis Mechæ



im-pro-pe-ri-um. 6) Sub Francisco Pa-tre degens, Et pro Christo factus e-
li-quit pa-li-um. 5) Au-gus-ti-ni tenens normam, Post viven-di mutans for-




gens, Cælum dives á-di-it. 8) Hac vir-tu-tum vi-a mórum, Vi-ctor fu-
mam, Ad Minores tran-si-it. 7) In-tus De-o parans templum, Fóris for-



- it vi-ti-o-rum Armis pæ-ni-ten-ti-æ. 10) Magnos monens et pu-sillos,
mam et exemplum De dit sancti-mó-ni-æ. 9) Hic su-per-ni præco Re-gis,





Non pal-pa-bat hos aut il-los, Ae-que librans singula. 12) Má-ris se-dat
Tu-ba to-nans no-væ le-gis, Fla-gra-bat ut fá-cu-la. 11) Cæ-ci vi-dent,



tem-pes-tá-tes Aegris confert sa-ni-ta-tes, Ré-dit et de-perdi-ta 14) Da tri-
mu-ti fantur Et de-fun-cti sus-ci-tan-tur Per ip-si-us mé-ri-ta 13) O An-



umphum vi-ti-o-rum, Et in vi-am man-da-torum, Gressus nostros pérfice. 13
tó-ni, flos Minorum, Mi-se re-re mi-se-ró-rum No-s de cae-lis rés-pi-ce.



(Ex libro «Cantus Varii» O. F. M. ed. 1902).

PADUAKO ANTONIO DEUNA EUSKALERIAN



SKOTAN esaten degun gauza da; baña, naiz eta gure gizabidea ez dan ezaubideen arauzkoa, egia da ta esan dezagun beziz ere: Euskadik, Euskalefiak egiazko Jaungoikoaren eta bere mirabe zintzoen jauretxea dirudi. Bereontan ez da ibafik, ezta mendi-munorik Jaungoiko beraren edo bere mirabe zorionekoren baten gorespenetan jasotako gurutze edo etxetxoren bat gabekorik: Aizkofi, Aralar, Beriain, Mendaur, Muskilda, Mendaur, eta...

Paduako Antonio deuna, Leon amairugafen Aita Santuak dionez, ludi guzikoa da; beraz lufalde guziak berentzat ar dezakete; bañan gutxik izango dute noski Euskalefiak ainbat bide deun maitagafi ori berena dutela esateko. Bai, Euskalefiak aspalditik maite izan du Paduako Antonio deuna eta aspalditik erakutsi izan du agirian maitetasun ori.

Irakurtzekoa da Agifetar Domingo zanak, bere irakurgai eder, GAROA'n gai oni buruz diona:

«Jaungoikoak jafi zuan Bizkaian Urkiolako mendia, Arabaren ondoan, Gipuzkoatik ufesamar, ta mendi ofen gañean ipiñi zuten euskaldun sinistetsuak Antonio Donearen elizetxea, zorion guztien itxaropenerako.

Mendi ofetara joaten dira safi Bizkaikoak, Arabafak eta Gipuzkoa eder ontan jaiok; mendi ofetara joaten dira, donerik efukior, miragilerik andien ta sendatzalerik onenaren jauregira bezela, uri andi gizaditsuetatik eta basefi txiki padutafetik, aberatsak eta txiroak, gizon zindoak eta osasungabeak, indarge jaiotakoak eta ezufen bat autsi dutenak; efenak eta itxuak, ankokekak eta besomotxak, gofak eta zauriz beteak, totelak eta zanpatuak; buruko txorabio, zuldar, legen, eztul, berako, minbizi, anditsudunak: etsita daudenak, bizi nai luketenak, irabazbidea idorotzen dabiltzanak, euri edo eguzkiaren beafean arkitzen diran lur-jabeak, Ameriketan semeren bat daukaten gurasoak, gudara joan bear duanaren aideak, ikastolatik etxeratutako mutilak eta ezkontzeagatik mototxa salduko luketen neskatzak: itz gutxitan amaitzeagatik, gogo, estutasun, samñi edo premiaren baten arkitzen diran euskaldun guztiak, osasun bila, argi eske, laguntasuna itxaroaz, zoriona ifikitzen edo eskefak ematen; eta bertan, Urkiolan egin oi dituzte benetako afeñak eta bertan utzi, beren oparitzat, egufezko *makuloak*, argizarizko anka ta besoak, zilafezko biotzak, ile txirikordak, ontziak eta soñekoak, izenak eta kondairak, samñi, aje ta neke askorekiñ batera.

Beti dago norbait Urkiolan meza bat eskeintzen, argitxo bat ipintzen, bederatziafena egiten; beti dijoa mendi artatik zeruraño euskaldun batzuen eskaria, Antonio donearen bitartez (IX, Itxaromendi).

Guziz ezagunak dira ere onako neurtitz edo *bertso* zar auek Euskalefi guzian eta garbi asko adierazten dute Antonio deunarenganako gure efitafen eraspina, *debozioa*:



Urkiolako bi Antonio Deunak

*Aita San Antonio
Urkiolakua,
Askoren biotzeko
Santu debotua.*


*Askok egiten dio
San Antoniori
Egun batean joan da
bestean etori.*



Antonio deuna euskotaren odolekoa?

Aspalditik esaten da Bizkaian, Paduako Antonio deunak amaren aldeko amandrea, (amona, amatxi) Bizkaikoa zuela; Sukafietako Arbiña deritzan basefian jaioa, Santindere zafeko eliztara.

Muskudiko Eliza (Benaparra)




Esaten da ere, Antonio deuna France'ko Toulous'en zalarik, Italia'ra itzuli baño len, berari izatea eman zionaren amaren sortefia ezagutu-nai izan

zuela aren jaiotetxea ikusiz. Oñez etofi omen zan; eta Urkiolako aitzetaraño eldu zanean, ekaitz aundiak eraso zion eta Antoniok, inguru aietan zan, etxe bakafean gelditu bear izan zuen ufengo goizera arte, Sukafietara jafaitzeko. Bere aidekoen etxean bi egun igaro eta Italiara itzuli zan.

(Ikusi *Ituriza, Historia General de Vizcaya*).

Antonio deunari eraspena berariz erakusten zaion tokiak.

MUSKULDI. Benapafoko Larzabalditik Zuberoko Maule uriburura joateko Oskis mendia zear igaro bear da. Zazpireun metroko goitasuna duen mendi eder ori bi erki oien erdian dago; eta Muskuldiko lufetan, bidebefia-



Bellariak Oskix menditik jeixten


ren eskubi aldera, gain-gañean, Antonio deunaren elizatxo zaar bat daduka.

Elizatxo ori amalaugafen mendekoa da, 1385 urtean egiña.

Mendearen asieratik, lufalde aietako bizilagunak bi alderdi egiñik zebiltzan: Lukuze'tafak eta Agramont'etafak; eta odol-galtze aundiko bufukaldiak izaten zituzten beren artean. 1384 urtean, iñoiz baño ikaragafiago asi ziran guduan; eta Napafoke Karolo *gaizto* efegeak Iruñatik bertaraño joan bear izan zuen Benapafokoak paketzera.

Bi alderditakoen asafebideak entzun zituen efegeak eta erabaki ere bai aien arteko auziak; eta pakebidetarako, Antonio deunaren izeneko elizatxo bat egiteko agindu zien bi alderdietakoen lufen erdian, Oskix mendiaren gain-gañean. Bereartan beti izango zan apaiza, efegearen eta bere aufekoan alde eta ardura artu bi alderdietatik il ziranen animen alde otoitz egiteko.

Alare urte batzuen buruan, asafebidea befiro sortu zan bi alderditakoen artean eta beren arteko guduak emaseigafen menderaño iraun zuen.




Arbiña'ko elizatzoa

Mauleko irakasle argi batek zionez, Lukuze'ko nagusiak, jaunak, Albi-geisiko gudutean ibiliak ziran eta Antonio deuna afigafiak egiten ikusi omen zuten, ofegatik eraspen aundia zuten arentzat, eta eraspen ori erakus-teko egin zuten Antonio deunaren izeneko elizatzxo ori.

Lenengo elizatzxo aondatu zan eta 1865'an befitu bear izan zan eta aunditu. Geroago 1911'an efe egin zan eta befiz ere befitu zan.

Aspaldietan azturik dago alderdi aietan elizatzxo ofen iraspenaren oroi-tzapena; baña alare Benapañak urteoro joaten dira beilaz elizatzxo artara iru egunetan: garagafilaren 13'an eta 24'an eta dagonilaren 19'an. Iru mila lagu-netik gora biltzen dira urtero elizatzxo aren inguruan.



Urkiola'ko eliza beña orain dagoen eran.

EREÑOTZU. Ernanitik Napaforako bidean dago izen ori daraman etxadia; etxadi ortan izen bereko Antonio deunaren elizatzxo. Ereñotzuko Antonio deunak maitetasun berezia du aurtxoentzat; eta gurasoak aren au-fera eramaten dituzte bere seme-alabatxoak, Deun efukitsu arek gorputze-ko gaitzetatik eta beste zoritxar guzietatik begira ditzan. Irurogeitamar bat urte dira noski elizatzxo ori egin zala.

URKIOLA. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako bizilagunak ainbesteko eraspina dakarkioten elizatzxo afigafi au eztakigu noiztikoa dan. Amairuga-fen mendean ba omen zan Urkiola Ejitoko Antonio deun padafaren irudia eta aren afean otoitz egin omen zuen Paduako Antonio deunak, Sukafietara-koan, Urkiolan igaro zuen gau artan.

Eta Paduako Antonio deuna il eta deunetsia izan ondoan, kristauak aren irudia aldaretan ipintzen eta lurbira guzian aren izeneko elizak jasotzen asi ziranean, bizkaitafak Urkiolan egin zuten bi Antonio deunen omenetako eliza.

Amazazpigafen mendearen erdialdera, 1640, befitua izan zan eta aundi-tua; 1754'an erabaki zan Abadiñoko apaiz jaun bat bereartan bizitzea, ara zijoazen kristauai laguntzeko; eta 1870'an egin zan oraindik zuti dagon ez-kila-tofea.

Mende ontan egiten asi da eliza beña; ziñez aundia eta ikusgafia; baño erditara gabe, gelditurik daude lanak. Lenagotik, ez da ezer ageri, azkena egindako dofea baizik.

Eliza ofen inguruan etxe-sailtxo bat bada; eta iru apaiz jaun daude elizako lanak egiteko.


ARBIÑA. Sukafierako lufetan, Santindere zafa egon zan ugartetxo ondoan, izen bereko ondartzan dago Antonio deunaren elizatxo ori. Urbilean du ere izen bereko baseña, Antonio deunaren amaren aldeko amandarearen sortetxea dala diotena. Gaur egunean, elizatxo ofen garako aldean dago Bilboko Auzezki-kutxak egindako «*Begoñako Andre Mariren Aur-etxe*» ikusgafia.

Itufiza, Bizkaiko edeslariak dionez, emezortzigafen mendearen azkenal-dera egiña da elizatxo ori. Busturia inguruko kristauak egin zuten guziñ artean. Berori egiteko asmoa befiz Gernikako andre batena izan zan: Eriandi zegolarik, elizakoak ere artuta, Antonio deunari otoitz egin zion, senda zezala; eta baldin sendatzen bazan, Sukafietan aren izeneko elizatxoa jasotzeko egiñalak egingo zituela agindu zion; eta arako irudia berak eramango zuela. Andre ura sendatu zan eta baita elizatxoa egin ere. Inguru aietako kristauak eraspen aundia erakusten diote elizatxo ofi; bañan ez dira asko izango noski, Arana eta Goiri'tar Sabin argi eta jainkozkoak baño eraspen aundiagoa izan zutenak elizatxo apal arentzat. Ekaitzen indar ondagafietatik begiratu naiez edo, berak sartu zituen oraindik ere elizatxoari itzal egiten dioten zuaitz edefak; eta elizatxo ortan egin zuen bere ezkontza.

Napafoan ere badira Antonio deunaren elizatxoak: Gesalatz ibafean Genbeko lufetan, Afiasgoitiko ibafean Aginagako lufetan; Sankotze aldeko siñistedunak befiz, uri artako Aita Kaputxinoen elizako Antonio deunaren irudiari maitetasun aundi erakutsi izan diote eta jai aundia egiñ oi da eliza eder artan garagafilaren 13'an.

Antonio deun pakezalea, bere etsai guzietatik begira ezazu maite zaituen Euskalefia!

Ataungo Bonifazio A.





BEARTSUEN OGIA



Bere soñera.

NTONIO deunaren edo Beartsuen Ogia aspaldian sortutakoa da. Antonio deunaren egunetan asia dala esan liteke.

Asieran *Pondus Pueri*, Aufaren Zama esaten zitzayon. Ara zergatik:

Paduan aurtxo bat putzura erori zitzayon bere amari. Aupa ateratzen asi zaneke itorik arkitu zuan. Naigabez biotza erbiditurik aufari negafez ots-egiten zion; baño aufak etzion erantzuten. Orduan Antonio deunagana jo zuan. Itz eman zion, bere semetxua bizirik itzultzen bazion, afen zama edo pisua ainbat irin emango zuala beartsuentzako. Santuari atsegin izan zitzayon eskeintza. Bere aufaren afean belauniko eskea befitzean, aurtxoapiztu zan. Lotatik orduntxe esnaratzen balitz bezela ifi-pafez asi zitzayon amari. Onak muxuka ta besarka jaso zuan bere aupa. Amak itz emana, zintzo bete zuan. Aufak zenbat pisu, beste ainbeste irin eman zien beartsuei.

Afigafi open befia bereala zabaldu zan. Geroztik era berean amaika eskeñi egin izan zitzayon gure deunari. Bere mirari afigafiak egunetik-egunera ugaritzen zituzten eskeintzak.

Gure egunetan

Aita Mari Antonio Tolouse'ko Kaputxinua, izan da gure egunetan beartsuen Ogiaren zabaltzaile. Antonio deunaren maitatzaile sutsua zan.

Bertsuen Ogiaz baliatzen zan Jaungoikoagana asko ekartzeko. Antonio deunak itxasoan ontzi bat inork uste etzezakena ta ufutitik datofena ogi zuriz eta asegafiz betea zekafela esaten zuan. Berak erakusten zuan ogi ori edozein bear ordutan eskeintzen. Alako batian Toulon'go neskatz elizkoi bati gertatua ikasi zuan. Bere dendako giltza galdu zitzayon. Egiñalak egin afen inundik inora atea ezin zabaldu. Ainbat giltzaz iriki nayeze ibili afen, etzuan iristen irikitzea.

Azkenian Aita Mari Antoniok esanaz gogoraturik eskefi zuan beartsuentzako eman zezaken ogia. Befiro asi zan atea irikitzeko. Bereala, len-dabiziko giltzaz irikirik ikusi zuan. Gertaera onen befia gure Aita Misiola-riari biramonean zijuakion. Onen befia *Semaine Catholique'en* argitara eman zuan. Bertatik asi ziran eskeintzak ugaritzen.

«Neri ezer galde egin gabe, Aita Maria Antonio onak, nere eskutitza Tolosako'ko *Semaine Catholique'en* argitara eman zuan. Geroztik alde gu-zietatik eskutitzak eta diru-arpideak txekeak pilekan iristen zaizkit. 1892'ean bost mila franko bildu ziran eta ufengc bi urtetan lenengoan ogeita zortzi mila ta ufenagokuan eun da zortzi mila franko izan ziran.

Neskatx afek, Luisa Bouffier zuen izena. Bere dendaren atzean Antonio deunaren iruditxo bat jafi zuan. Efiko gizon emakume gazte ta zar, jakin ta ez-jakiñak guziak gure Deunagana zetozen, eta bere ikuszaleak naiko afiga-fi befi bazekarten beren aldetik adierazteko. Onela Antonio deunaren maitetasuna ta beartsuentzako ufikaltasuna batera zabaldu ziran Prantziko bazte-fetan.

«Mundu guztiko santua»

Leon XIII'gafenak izen ori eman zion gure Deunari. Bañan egiaz zor zayo. Beartsuen Ogia alde guzietara zabaldu da. Lufean ezta baztafik, naiz katolikoan artean, naiz Protestate artean, Antonio Deunaren Ogiaz beartsuai jatera eman etzayonik. Nonnai dira beafak, baita ere Antonio deunaren mirariak. Onela adierazten digute beartsuen ogiarentzako bazter guztietan biltzen diran diru pilak. Naiz European, naiz itxasoz beste aldeko edozein efi aldetan Antonio deuna, bere eskuetan daukan Jaungoiko-Aufarekin eskeka agertzen zaigu. Milaka pezeta biltzen dira bere ofietan daukan kutxatxuan. Ari eskefak efi alde oyetako beartsuak badute beren premietako estalgafia. Ameriketako, Ozeaniako, Indiako, Japon'go ta Txina bereko befiak Antonio santuaren eskuz egunero kristau beartsuentzako biltzen duten diruaz, itzegi-ten digute. Manilan bakafik Aita Frantziskafen elizan ilero-ilero mila duro ta geyago jasotzen dituzte.

Españian ta Euskalerian.

«El Pan de los Pobres» deritzayon aldizkariak esaten digu: Antonio do-nearen kotxotan Españian biltzen dan limosnari begiratz, *egun bakoitzeko eun mila beartsuri* jatera ematen diote gure Santuak. Ofa Antonio deuna-ren mirari aundia. Egun bakoitzean Franziskar beartsu batek, eun mila beartsu Españian alikatzea.

Euskalerian aspalditxo ontan baditu efi aundietako elizetan beartsuen ogitako kotxoak. Beroietan milaka pezeta asko biltzen dira bertako beartsuentzat.

Ez al litzeke on izango, efi bakoitzetan bertako beartsuen alde ematea, Antonio deunaren Ogitako ematen dan guztia? Onela gure beartsuak lagun-tza ugarixago izan lezakete beren beafetarako. Burundan eta Sakanan eza-gutzen ditugu zeinbat efi berauxe egiten dutenak.

Egiguзу, bada, Antonio deuna, gure Efietako eza eta beartsu guztiak izan dezaten gaurkoan eguneroko ogia, baño onekin batera baita ere berau irabazteko era egokia ta alkarganako maitetasun bizia!..—*IPARE*.

Antonio Deuna Misiolari

Misiolaririk aundienetakoa Antonio deuna izan da.

«Antonio Donearen deuntasunean, XI-gafen Pio Aita Santuak dio, geien-geiena agertzen dan onbidea Jaungoikoaren alde lan egiteko bafengo Jaun maitetasunetik zerion ardura ta sua da.»

Siñisgabeen arteko Misiolari.

Mila befeun eta emezortzigafen urtean Franzisko santuak mairuetara bialitako bost Misiolariak, Portugal'dik bafena igaro ziran. Coimbra deritzaien efian, Agustindar Kanonigo lekaideen etxean gelditu ziran. Afotzak artzeko zeukaten praile gazteari biotza xamurtu zitzaion, buru-oiak utsik, soñeko zatafez jantzirik, siñistea zabaltzeko gar biziz beterik, mairuetara zijoazen misiolariak ikustean. Sei ilabeteren buruan praile aien ezufak gazte afek etxe berean agurtzen zituan. Orduko Mafuekos'en Jesukristo'ren siñistegatik bizia emanak bai zeuden. Ur piñin batek sua biziagotzen du, ta gertaera onek gure gaztearen gogoak biziagotu zitun. Misiolari-gura sortu zitzaion, lenengoz ikusi zituenetik, orain bere nagusien baimena irixten du, Prantzisko Donearen Praile ta misiolari izateko.

Prantziskafen artean bederatziz ilabete egiñik, «Apaizik etzan Mafuekos'ko baztefetan» Jesukristo'ren siñistea zabaltzeko gogoz itsasoz dijao. Mogador deritzaien efira iritxi zan.

Baño Jaungoikoaren asmoak bestelakoak izan! Sukar aundi ta iraunkofaz, osasuna galdurik, atzera itzultzeko ontzira, bear befiro. Aizeak ontzia bultzaka Siciliraño (Italia) darama ordea. Ofela Antonioren gogoa ontzat eman zuan Jaunak, eta siñismenaren alde bizia eman ba-lu bezela atsegin izan zitzaion aren asmoa ta Antonioren anima donetu zuan.

Antonio deuna siñestunen arteko misiolari.

Antonio Italira irixtean, Asis'en biltzen ziran Prantziskar guziak beren Batzafa Nagusira. Ara joanik bera ere, Romagna'ko A. Nagusiak berekin Monte Paulo'ra eraman zuan. Baño laster, 122'ean, ez-ustean Antonioren jakinduri afigafia azaldu zan. Prantzisko Aita Deunak gertatua ikasi zueanean, Ebangelioa predikatzeke ta Jainkoizti edo Teologia praileai erakusteko ere baimena eman zion.

Garai aietan Italiko ipafaldean eta Franzi'ko egoaldean ziñausle edo ereje ugari zan. Auetatik zabalduenak, Katara edo Albitafak. Bi jaungoiko, bata ona, bestea gaiztoa dirala, erakusten zuten; gizonaren gorputza ta Efoma'ko Eliza jainko gaiztoak egiñak dirala; Ezkontzako Sakramentuaz ere gaizki itzegiten zuten.

Antonio deuna ziñausle oien gezufak agirian jafiz, siñiste egiazkoaren alde gogor egiten asi zan. Entzuleak mila ta milaka biltzen zitzaizkion. Alakoa zan bere itzaren indafa. «Nongoak ziran begira gabe,—dio Pio XI-gr. Aita Santuak—katoliko egiaren premian arkitzen zituen guziei, afrikar, Italiar, prantzitar edo portugaldafei, ardura berdiñez erakusten zien.

Bere itza zofotza ba'zan ere ziñausleen esan guziak ezerezturik uzteraño ta argatik berari «Ziñausle mañua» esaten ba'zitzaion ere, aita bat zai argi-gura ziran itxuentzat ta egiañen bila zetozen gizonentzat, edo seme galduentzat.

«Bere itzaldietan etzuen gizonen gorespenik, eñien osperik, aberats edo aundien onginairik bilatzen; itzaldia etzuten afotzen; itzak sal-eroslen antzera etzituen zabaltzen, baizikan begirapen eta ardurarik aundienaz Idazti Deun (Liburu Santuetan) edandako jainkozko jakinduria zabaltzen zuan.»

«Ezta aundia IX-gaen Gregorio, gure aufekoak, Antonio Deuna «Itun edo Testamentuaren Kutxa» deitzea.»

Antonio deunak itz jatofa bakafik etzuan. Bizia animen alde emateraño maitetasuna zuan; eta baita ere ba-zuan alatz edo mirariak egiteko eskubidea. Aita Santuak dionez: Garai zaletan, batez ere bere Elizari eusteko, Jaungoikoak bere bidalien erakusketak eta egintzak sendotzeko egiten ditun mirariak etzizkion ukatu.»

Mirari auei eskefak, ziñausle askok beren begiak zabaldu zituzten eta katolikoen egien aurka zebiltzenak egitara, ekafi zituan eta aien egiñal biufiak pufukaturik, eñien arteko asafe ta gofotoak baretu ere egin zituen.»

Italiako ipafaldean ba-zan garai artan agintari anker bat, Alemania'ko Kaiser'en ordezkioak egiten zituena, Aita Santuaren eta Kristau efiaren etsai gogofa, Ezzelino. Idazle batek dionez 50.000 lagun il zituen; aien artean 67 prantziskar.


Lonbardi'ko Nagusi egin naiez zebilen. Paduafak nega-fez zeuden. 12.000 lagun gizon ofek ilak ba-zituzten eta egun aietan Beronan egindako gogorkerien befia ikasirik zeuden.

Antonio deuna, bere bizia ezetsirik, anker arengana joan zan eta gogof itzegin zion; Jaungoikoaren izenean ezeren kalterik eñi artan egitea debekatuz. Gizon biotz gogofak Antonioren itzak uzkur-urkur entzun eta bete egin zituan.

Amar urte egin zituen antonio deunak bere misioa uetan.

Aren itzaz, Jesusenaz Ebangelioak diona esan liteke: Aren esanak beste lege-adirazleenak bezala etziran, baizik itzak indar berezia zuten aren agoan.

Siñismenaren aldeko bere



Coinbra'ko Agustindañen eliza. Antonio deunak Prantziskar egiteko dela izan zuan tokia.

esan guziak, alatz edo mirariz egiztatzan zituan Jaungoikoak. Eta onela esan diteke Antonio Deuna nondik-nora zebilen; bere itzaldietan, bide ontatik agertzen zaigula zenbait aldiz. Bere ibilaldi guztiak afigafiz edo mirariz josiak daudelako.

Bere biziera bera, miraria bai-tzan ark egiten zuan bizibide gogofaz. Meza eman eta itzaldi orduraño aitortzen egoten zan; eta itzaldia egin eta artortegian sartzen bai-zan afatsalderaño. Gosaldu orduko, askotan ilunabafa zetorkion.

Gaua befiz otoitzean, ikasten eta itzaldiak egiten joaten bai zitzaion, guzia ezpada ere, geiena.

Antonio deunaren mezua.

Apaizak, Antonio deuna bere bizieran eta onbidetan gure eredutzat artu dezagun. «Gure jakinduria idazti deunetan (liburu santuetan) edaten» berak erakutsiko digu.

Bizitzako ordurik latzenetan otoitzera jotzen; siñismenaz, maitetasuz, eta geren buruen ukaldiz animak zerurako irabazten, beragandik ikasiko degu.

Apaiz eztiran kristauak ere «Antonio deunaren biziera beren eredutzat artu bezate» dio Aita Santuak. Kristau guziok apaiz eta misiolari izan bear degu. Lenbizi Eliza ama deunaren eta bere Apaiz eta misiolarien alde otoitz egiñez; gero Jesu Kristok eta Elizak erakutsi guzia aitortuz eta ikastera emanez, itzez ezpada, egitez; eta Apaizai eta misiolariari beren eginbidetan laguntza alegiñean emanez.

Gure Aita santuak auxa eskatzen digu gaur kristau guziori.

Padua'ko Antonio Deuna, gure alde otoitz egizu!

Altzo'tar Diego J. A.

GAZTEEN ISPIĻUA

Eliz ingurutua dagerkit Andoni Deuna margo guztietan. Lore oiek Andoni gaztearen garbitasuna ageferazi nai digute noski. Bañan alde ontatik bakarik begiratzan bazaio, bera-tza ta iñori auzekatzeko gauza etzala siñistu lezake norbaitek. Jesukristo ere Berak dionez oso biotz-apala ta otzana agertzen omen zan beti. Baña Jerusalemgo eliz-atarian saltzaleak istilu lañan zebiltzala ikusi zituanean, zigofa bi aldiz eskuan erabili zuala idatzia dago oro bat... Andoni Deunaren bizitzak badakar bere gogoaren bikaintasuna ederto erakusten digun gergertaera bat, Ezelino'rena.

Ispilu ontan begiratu bear lirake gaurko eguneko gazte asko. Zenbaitek uste dute Urkiolara edo beste Elizetara urtero joatea dala gauzik atsegiñena Andoni Donearentzat. ¡A, mutilak! Orduan oso efeza ta lorez josia genduke zeruko bidea. Ederki dago gure asaben sinismenaren ezaubide diran bidezkunde edo efomeri oietan irautea. Bañan entzun! Ibilaldi oietan dabilzten askok, arpegiko prinz edera erakusten duten zenbaitek, biotza pipiz joa iduki oi dute. Auentzako esanak dirudite itz auek: «afi ibilokiak goroldiorik ez, erle uxatuak abaarik ez»... ¡Begira, gazteak! Lore usaidun-edefak gure baratzetan nai ditugunean, erne gabiltza lufeko bare ta kurkuilo guztiak lertzeko. Ofa, ba, zuen lanik bereziarena: zuen biotzeko loreak igartu naiean dabilztan bare oiek itotzea. Erne egon euskaldun gazteak, gure bazter guziak loitu nai dituzten etsaiak zapaltzeko. Eutsi gure oitura garbiei. Orduan zuen eztari leun garbiak bakarik egiten dakizkiten ifintzi ta lekaio luze-luze-mee, alaigafiekin baño egokiako agefaraziko dezute gure abenda zafaren sendotasun ta osotasuna.

GAZTELUNTZA

¡Antonio Mirarigilea: Aitatxo Zerurontz Ekari!



GAZPIKO mutila zure atzetik dabilkizu noski?

—Ori esan ba'dizute, oraingoan beregatzen nauela esango dizut.

—Pozik esango nizuke: bejondeizula, baña...

—Zer ba?

—Mutil zintzoa ta langilea dezula, baña...

—Baña zer?

—Elizara beñere etortzen eztela.

—Ba-dakit ori. Maite nauen ezkeroztik, Jaungoikoa maite ezpadu ere, maitatuko du, ta zorionekoak izango gera.

—Jaunari alaxe nai dakiola.

—Nik ala uste, Antonio Santuari atsegin ba-zaio. Asteartero argizari bi bere aldarearen afean efeazten ditut eta esaten diot: Antonio mirarigilea nere senargaiaren biotzari su pixka bat emaozu, Jaungoikoa maitatzen era bat asi dedin.

Ezkontza anteak egin ondoren, ezkontza eguna etofi zen. Egazpi etxeko egun alaietan alaiena uraxe izan zen.

Gaztañazal etxeko Mari-Antonin aide ta lagunak, Joxe Manuel'en aide ta lagunekin auzo guzia aiden jafi zuten. Bapo jan, bapo edan, algara ugari ta dantza geiegi, noiz-bait ere ara-onera alde egin zuten.

Ezkonbefien ibilaldia aski labura izan zen. Bilbaoraño'ko joan-etofia. Ango eliz batzuk emazteak ikusi nai izan zitun. Joxe Manuel'ek etzion galazi, bai ordea esan:

«Mari-Antoni, nai dezun guzian elizera joan ziñezke, nere afean otoitz egin ere bai, baña neri pakean utzi.

Zaztadakoan bat edo beste noiz edo noiz Mari-Antoni'ri bere biotzak ematen zion. Ezkontza txara egin ote det edo?

Ezkontza txarak omen dakazki, gosea ta makilada aski!

Zoritxarik nere etxean ez nuke, ba, ikusi nai.

Antonio Mirarigilea, nere senafaren biotzari su pixka bat emaozu, Jaungoikoa maitatzen era bat asi dedin.

Ama onak seaskan zeukan aingerutxo. Zeruko aingeruekin ametsetan dagoala igafi dio. «Lo, mere maite txikia, lo!.. ĩuku, ĩukutuna!.. Seaskari eragiñaz aingeruekin jostatzen laguntzen dio.

Eta aldegin bear duenean muxu-emanaz esaten dio:


Antonio Mirarigilea, aitatxo zerurontz ekari!

Aingeru zaitzailearen egapean eta amaren magalean Karmentxu azi zen.

Eguzki ditziratsuak bazter loratuak baño geiago, Karmentxuk Egazpiño soro ta alderdi edefak alaitzen zitun.

Egunero oieratzekoan amarekin belauniko jafi-ta, poliki esaten zun: Antonio Mirarigilea, aitatxo zerurontz ekafi».

Bein ordea, ori esan ta Karmentxuk, bere gixa, baita ere esan zun: «amatxok negar ez egiteko». Eta amari lepotik eldurik, laztan beroak eman zizkion.



Murillo-ren Antonio Deuna. (Sampetesburgon) Ermitage'ko Iruditegian.

Esan ba-zun esan, andik auffera etzun loak artzen otoitz ori egin gabe.

Baztar alaiak, lur loretuak, eta edertasunez apainduak Egazpi etxeko inguruak. Txori txikiak uda-befian beren izkuntzan kantari, efekatxoak ura palastadaka darama bidetik. Zer atsegiña, zer pozbidea, zer alaitasun berdin gabea. Non nai bizitasuna. Etxeko sukaldean, geletan eta txoko guzietan befiz, ixiltasuna ta iluntasuna.

Zer da ba? Etxeko Andre gaztea oiean. Bere inguruan bi gizon. Bat ja-ta, efe-belara ezpañetan, Mari Anfoniri galdezka: Bestea, Joxe Manuel dezu, emazteari ta sendatzaleari begira.

Sendatzailea egunero etortzen ba-da ere, iñondik-iñora bizitasunik ezin eman dio. «Leioa gau ta egun zabal-zabaliz iduki zazue, nai duen guzia jateko eman eta laxter zelaiez-zelai ibiltzen asiko zeranean, bazter oietako loreak bezin eder eta zoragafi zure gizonak ikusiko zaitu.»

Senafak negar eta sendalaria ixildu da...

—«Ama, ama bal.. «negafez umeak. «Amatxo, muxu!..»

—«Atoz, maitea, nik goxua emango», sendalariak dio. Eta eskutik artu ta umea amaren gelatik ba-derama.

Egunetik egunera lorea ximelago. Nai ta naiez igartu egin bear!

Gau batean aita ilun-ilun, ixil-ixil gelan exerita zegola, loak artu zuan. Karmentxu ixilago oraindik! amaren oe-gañera etori ta ari muxuka asi zan.

Doi-doi an itzegiñaz, lepotik eldurik, muxuka ari zitzaion alabatxoari amak esan dio: Nere aingerua zu. Esan maitea, esan beti bezala: Eta Karmentxuk orduan eskuak bular-aufean elkartuta esan zun: «Antonio mirarigilea, aitatxo zerurontz ekafi, amatxok negar ez egiteko».

Egun ta alako kafaxia aitag egin zun, ori entzutean esnaratu zalako. Umeak negafari eman zion eta bere arpegia amaren kolkoan gorde zun.

Orduntxe aitag guziari igafi zion. «Mari-Antoni gaixoa, nik il zaituk nik.»

Begiratze xamufaz emazteak esan zion, zezaken bezela: Zure anima zeruratzeko ustean nere biotza zurearekin korapilatu nun. Nere bizia ere Antonio santuaren bitartez Jaunari eskeñi nion. Amaika argizari bere aldare-aufean efeazi ditut, bere bitartez Jaunaren maitasunaz zure biotzari su emango diolakoan. Ben-benetan maite nauzulakoan naukazu. Alabatxoo ondo azi ta ezi. Nik erakutsia esaten utziozu: «Antonio Mirarigilea, aitatxo zerurontz ekafi.

Ni zerura noa: zuen bion zai antxen egongo nazaitzue. Zuek gabe biziko nintzake, ba?..

Amaren ondotik Karmentxu ere zerura joan zen, amaren gaitzak kutsatu zuelako. Ilobi berean lurperatu zituzten. Ilobiaren gañean belafa ugari, lore batzuek ere bai.

Joxe Manuel, Antonio Mirarigilearen bitartez zerurontz abitu zan ezkerroztik, mundutik alde egin eta Frantziskafen artean bere egunak amaitu zitun.

Oyartzuna.